

telebista ♦ irratia

RDS eta DAB sistema aurrerratuak eskuratu ditu EITB irratia taldeak

Radio Euskadik, Radio Vitoriak, Euskadi Irratiak eta Euskadi Gazteak erabiliko dituzte

Erredakzioa / Donostia

Zenbait zerbitzu gehiagarri eskaini eta emisioaren kalitatea hobetzen duten bi sistema berri eskuratu ditu EITB irratia taldeak. Hala, Radio Euskadik, Radio Vitoriak, Euskadi Irratiak eta Euskadi Gazteak sistema aurrerratu horiek erabiliko dituzte aurrerantzean.

EUSKAL IRRATI PUBLIKOA osatzen duten lau kateek RDS eta DAB sistema aurrerratuak baliatuko dituzte aurrerantzean, eskaintzen duten zerbitzua hobetzeko asmotan. EITBko irratietako arduradunek teknologia berri horiek erabiltzeko aurrerapenak azaldu zituzten atzo Gasteizen, Radio Vitoriak duen egoitzan.

RDS sistemak (Radio Data System) erakundeek eskaintzen dituzten zerbitzuei buruzko informazioa eskuratzeko ahalbidetzen du. Hala, emisioaren kalitateari kalterik egin gabe, informazio gehigarria lor daiteke baliabide horren bitartez:



EITBko irratietako arduradunek, atzo Gasteizen, RDS eta DAB sistemen aurkezpena.

esate baterako, irratia katearen programazioa, errepide-etako egoera, istripuak, bide alternatiboak, eguraldia eta larrialdiak... Gainera, kontuan izan behar da merkaturatu saltzen diren irratia aparatuek gehienek badutela RDS sistema, zeina Fre-

kuentzia Modulatuan baka-
rrik erabil daitekeen.

DAB sistema (Digital Audio Broadcast), berriz, azarotik probatzen ari da EITB. Horren bitartez, kalitate handia lortzen da uhinak hartzerakoan; adibidez, oso nabaria da hori autoeta-

ko irratietan. Era berean, faxa, errepide alternatiboak, hotelen zerrenda, abestien izenburu eta itzulpena eta abar eskaintzen ditu. Oraingoz Araban bakarrik erabili izan da zerbitzu hori, baina urte amaierarako EAE osoan ezartzea espero da.

txoritxoari mokoka

♦ Ines Intxausti

EGUNKARI honetan daramadan denbora luzean hiru aldiz erabili dut zutabe honi eman diodan izenburua. Beti memento estrategikoak agertu direnean, noski. Eta egungoak mugarrak bat ekarriko du gure patuan. ETAK, suetenari behin betikotasuna eman eta gero, bere ekintzak geldituko dituela adierazi du. Horrek, gauza asko iradokitzeaz gain, herri honetako nagusienek ere bakea ikusi eta ukitzeko aukera izango dutela esan nahi du. Hori horrela izan dadin, agintariak bizitza osoko ahalegin zentzudunena eginez saiatu beharko lukete. Gure gizarteko zaharrenak etorkizuneko lehen oskarbi leunen lekukoak izan daitezkeen, besterik ez bada. Hala ere, informazio hori ez zen lehen errikoa izan herenegun gauean telebistarentzat. Gure etxean azken mugimendu taktikoen ondorio posiblistak ospatzen ari ginen bitartean, TVE, A3 eta BBC Worldkoek beren saioak geldiarazi zituzten NATOr

Eta orain presoak kalera

zuzenean jotzeko. Bertan, Javier Solanak, Jugoslavia ohiaren oihanean sartu beharko dutela aurreratu zuen. Espainiako kate generalista, Hua de TVE eta A3koek informazio denotatu horrekin —beno halakorik esatea denotatua baldin bada...— itxi zituzten bere konexio eksklusiboak. BBCKoek, berriz, Milan Panic eraman zuten platora. Milan Panic Jugoslavia bat zenean lehen ministroa izana da. Inork materia horretan ezer esateko baldin badauka, berak dauka eskubide identifikatibo guztiak, noski.

Guztiz grinatsua azaldu zen pantailan. Nola ez, bada.

Aukera gutxi izaten dugu telebistari zerbitzu zentzua bilatzeko. Eta joan den asteartekoa halakoa izan zen. Seguraski CNNkoek Iraken egin zuten bezala, Serbian zituzten kokatuak kateko

kamera gehienak. Odola zuzenean, San Martin eguneko leloari jarraituz. Eta agian hori Isabel Gemioren saioa ikus-
tea baino askoz ere ariketa osasuntsuagoa izan daiteke! *Mirando al sur* deitzen da haren programa berria. Izenak merke espresatzen duenez, Espainako hegaldara begira egiten da. Andaluziara, hain zuzen ere. Europako lur ederrerenetako bat da Andaluzia. Eta ez ditu merezi halako irudi ofentsiboak. Ez telebistan, ez inon. Chiquito de la Calzada, Miguel Caiceo (!), Bertin Osborne eta beste burugabeen zerrenda katodikoarekin bete zuten Andaluzia goraitzeko erabili nahi zuten saioa. Aitzakia besterik ez zen izan azken munstro eta fenomeno telebisibosasiuoretsuak dohainik promozionatzeko. Ez naiz andaluziarra, baina asko maite dut lur eder hori. Eta ez dago eskubiderik. Herri horren isla telebisiboa ez da aldatu Franco izokinak harrapatzen aritzen zenetik. Eta hori onartezina da.

aditza badut ♦ Xabier Lasa

Juanitaren garaiak

24 ordu • Euskalerrira Irratiak moldatu eta euskal irratia orok larunbatean emititu zuten 1976ko udaberriko 24 ordu euskaraz kanpainako irratsaioak Franco oste istilutsu eta ilusiogarriaren argazki fina eman zizun. Hotsezko agiri *revival*-a sinbolismoz josia zegoen. Indiferentzia ez beste sentimenik eragiteko lain. Euskaltzale eskarmentatuenei une ameslari bezain arriskutsuak oroitaraziko zizkien. Besteak beste, zentsore eta grisei izkina egin ostean, kantaldi-protesten liturgiak sortzen zien bihotz dardara biziberrituko zitzaizkien. Antolaketan ibili zen Ferrerrek ohartarazi digunez, Juanita Reina *tonadillera* bezalakoen musika zen nagusi orduan. Orduan, pentsa Leteren *Nafarroa* Arragoa-k, esaterako, sor zezakeen zirrara. Baina batzuei abentura mitikoen mina pizteaz gain, gazteagooi saioak ikusmira historikoa eskaini zizun. 23 urteren buruan, alajaina, zenbat aurreratu duen hizkuntz normalkuntzak. Eta hala izanik ere, eguneroko borroka izaten segitzen du euskarari irratigintzan toki egitekoak.

Gabilondo • Donostiarra kanonizatu nahian PRISAk kaleratu duen panegirikoan (I.G., *Ciudadano en Gran Vía*), konplexu eta zalantza-kortzat jotzen du bere izaera. Horri esker, antza, jasotzen du aurrejuzguz gabe edozein pentsaera. Jokabide horren izenean, berriz deskalkifikatu ditu Gerestaren heriotzaz zalantza moralik azaldu ez dutenak. Epaiketa moralen aurretikako zuhurtasuna predikatu digu, tonu onberaz. Ez da printzipio makala, bizitzari aurre egiteko. Baina has bedi, arren, PRISA inperiotik. Aplika biezaio printzipioa bere tertuliarri. Saihes ditzala, Foroko gainerakoen moduan, berean ere lanabes diren ahoberokeriak. Hori egin ostean, ordea, egia absolutuz jositako eta ustezko etakiderik gabeko errealitatea hauts egingo zaie. Eta orduan zer? Tertulien heriotza.